



ERNESTO
PRAT URZAINKI

Erronka zaila da hiru liburu (soilik) aukeratu behar izatea, baina tira. Edorta Jimenezen *Stock 13* (Txalaparta, 2009) buru-fikzio erotikoa kontakizun ausarta da, musikaz eta metaliteraturaz eraikea, pasarte intimoz eta pornografikoz betea.

Jon Alonsoren *Beltzaren koloreak* (Susa, 2016) saiakera laburra biziki argigarria da, genero beltzaren protagonistak, ideologia eta asmo ilunak aztertzen dituena.

Javier de Isusiren *Asylum* (Astiberri, 2017) komiki solidarioa zoragarria bezain sakona da, biribila, kontzientziak **inarrosteko**⁵ modukoa. Erbesteari, asioloari eta migrazioari buruzko hausnarketak marrazkietara ekarriz, errefuxiatuen errealitatea uzten du agerian **arras**⁶ era pedagogikoan. Gidoiak maisutasunez lotzen ditu historiaren, istorioen eta denboraren erritmoak, akuairelaren kolore eta kromatismoen laguntzaz.

- 1. Moldatzaile:** zerbaiti forma ematen dion pertsona.
- 2. Menderakaitz:** menderatu ezin dena.
- 3. Komeria:** egoera bitxi.
- 4. Egokitu:** *adaptar(se) (es), adapter (fr).*
- 5. Inarrosi:** astindu.
- 6. Arras:** zeharo, erabat, guztiz.
- 7. Ahaidetasun:** *senidetasun, lotura.*
- 8. Arrastaka:** *a rastras (es), qui traîne (fr).*
- 9. Herritartu:** herritarren eskura jarri.

ARGAZKIPRESS



Zukafukamusuka, literatura erotikoa hiruren artean

Judit Ruiz de Munainen irudimenean sortutako hogeitahiru "ipuin, goxoki, gerezi" erotiko batu ditu Txalaparta argitaletxeak bere Literatura bilduman. *Zukafukamusuka* izena du hiru lagunen elkarlanetik jaiotako liburuak. Izan ere, alde batetik, egileak Patxi Zubizarreta izan du lagun ipuinok euskarara ekartzeko (halere, ez da itzulpen hutsa izan, narrazioei forma eman dien **moldatzailea**¹ ere izan baita Zubizarreta); eta, bestetik, irudiak Jokin Mitxelenak sortu ditu, narrazioak grabatzaile

japoniarren *shunga* generoko marrazki "nahiko esplizituekin" irudikatuta. Gizakiaren irrika **menderakaitzenak**² beldurrik gabe bizi dituzte ipuinotako protagonistek. Idazlearen arabera, istorioek islatzen dituzte "edozeinek, batez ere emakumeek, eduki ditzakeen *fantasiak; fantasia unibertsalak, alegia*". Ruiz de Munainek eguneroko egoeretan kokatu ditu aipatutako fantasiak, "baina ez dira egunerokoan gertatzen diren kontuak, geuk nahi-ko genituzkeenak baizik".

AMAMAREN GRAFITIAK (Erein) kaleratu du Toti Martínez de Lezeak. Hamar bat urte igaro dira idazle arabarrak *Los graffitis de mamá* gaztelaniaz argitaratu zuenetik, baina, orain, ama hura amama bihurtu da, eta aldaketa batzuk egin behar izan dizkio idazleak testuari euskarazko bertsioa argitaratzeko. Gaurkotasunik ez du galdu gaiak (etxetik kanpo lanik egiten ez duen etxekoandre "arrunt" baten **komeriak**³ irakur daitezke umorezko bakarrizketa kritikoa), eta Martínez de Lezeak orduko grazia bera baliatu du idazlan berria **egokitzean**⁴. Estibalitz Jalón Martínez ilustratzaile arabarrak idazlea bera irudikatu du liburu edertzen duten marrazkietan. Liburu asko ilustratu ditu arabarrak, batik bat haur eta gazte literatura arlokoak, 2007an bere lehen lana argitaratu zuenetik.

